

.....//.....

Bilera mota: Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

Data: 2015-07-01 (asteazkena)

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Lekua: Udaletxeko Batzar Aretoan

Erreferentzia:E-15-06

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko ekainaren 26a
Idazkari-kontuhartzailea

EGUNEKO GAI ZERRENDIA

- 1.- Informazio Batzorde iraunkorrak sortzeko eta osatzeko proposamena onartzea.
- 2.- Udal honek parte duen erakunde ezberdinetan ordezkariak izendatzea.
- 3.- Ohiko Udal Osoko Bilkurak egiteko aldizkotasuna ezartzea.
- 4.- Alkate eta Zinegotzien ordainsariei buruzko proposamena onartzea.
- 5.- 2015-06-24ko R-15-103 Alkatetzaren Ebazpena berrestea (2012ko abenduko aparteko ordainsariei buruzkoa).
- 6.- 2015/02 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea hasieraz onartzea.
- 7.- "Sexu Askatasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna"ri buruz aurkeztutako mozioa onartzea.
- 8.- Goierri-Urola-Garaiko Protokolo Soziosanitarioa onartzea.
- 9.- Erregu-galderak.

.....//.....

0-E-15-06: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

.....//.....

2015EKO UZTAILAREN 1EKO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ezkio-Itsason, bi mila hamabosteko uztailaren 1ean

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zaurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Gorka Sasieta Barrenetxea (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Maria Luisa Pildain Cenitagoya (EIK)
- Jose Maria Barrenetxea Aldanondo (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//.....

.....//.....

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//.....

.....//.....

**LEHENENGO PUNTUA:
INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORREN SORRERA ETA
OSAERA.**

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolaketa, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren Erregalamentuaren 124. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aho batez Udal Osoko Bilkurak,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA:

Jarraian aipatutako Informazio Batzordeak sortu eta osatzea, eta bakoitzaren arduraduna izendatzea (azpimarratu da Batzordeak irekiak izango direla, eta herrian zehar idazki bat buzoneatuko dela osatutako Batzordeen berri emanez eta interesatuek izena emateko).

GARIKOITZ AUESTA ETXANIZ (Alkatea)

- Ekonomia, Ogasuna eta Kontuak
- Gizarte Ongizatea eta Osasuna
- Parte Hartze Dinamikak
- Azpiegiturak eta AHT
- Landagintza/Hirigintza (Lur Ez Urbanizagarri, Urbanizagarri eta Urbanoa)
- Obrak eta Zerbitzuak*
- Giza Baliabideak, Udal Antolakuntza, Herritarren Arreta eta Informazio Gizartea
- Garraioak
- Zaborrak

.....//.....

.....//.....

JOSEBA ETXEZARRETA ESTALA (Zinegotzia)

- Sustapen Ekonomikoa, Industria eta Enplegua

ANDER UNZURRUNZAGA IDIAKEZ (Zinegotzia)

- Hezkuntza eta Hizkuntza Politika
- Gazteria, Kirola eta Migrazioa

GORKA SASIETA BARRENETXEA (Zinegotzia)

- Landa Garapena eta Ingurumena

MIKEL IGARTUA ANDUAGA (Zinegotzia)

- Etxebizitza Politika
- Zerbitzuak* (Gasa, Telefonía, Interneta eta Ikus-Entzunezko Azpiegiturak)

MARILU PILDAIN CENITAGOYA (Zinegotzia)

- Kultura eta Aisia
- Turismoa

JOSE MARI BARRENETXEA ALDANONDO (Zinegotzia)

- Zerbitzuak* (Edateko Ura, Ur Zikinak eta Pistak)

BIGARRENA:

Jakinaraztea, Informazio Batzorde hauek gaiak diktaminatzeko eta proposamenak aurkezteko ahalmena izango dutela, eta Udalaren

.....//.....

.....//.....

funtzionamendua bideratuko duela astelehenetan hamabost egunean behin bilduko den Gobernu Batzordeak (Batzorde honetan zinegotzi guztiak egongo dira), eta erabaki hauek alkatetzaren Ebazpenaren bidez gauzatuko direla.

HIRUGARRENA:

Bilerak egiteko honako egutegia finkatzea (bilerak Udaletxean egiten dira):

AZPIEGITURAK ETA AHT, LANDAGINTZA/HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, GARRAIOIAK, ZABORRAK, SUSTAPEN EKONOMIKOA, INDUSTRIA ETA ENPLEGUA, ETXEBIZITZA POLITIKA, ZERBITZUAK: Batzorde hauek batera bilduko dira astean behin, ostegunetan, arratsaldeko, 16:00etatik aurrera.

HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZA POLITIKA, GAZTERIA, KIROLA ETA MIGRAZIOA, KULTURA ETA AISIA, TURISMOA: Batzorde hauek batera bilduko dira hilean behin, hileko laugarren asteko asteazkenetan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA: Batzorde hau hilean behin bilduko da, hileko hirugarren asteko asteazkenetan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

UDAL HONEK PARTE DUEN ERAKUNDE EZBERDINETAN IZANGO DITUEN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

Udal honek parte duen erakunde ezberdinetan izango dituen ordezkariak izendatzea era honetan (ordezkoak ez dauden kasuetan, titularrak kasuz-kasu erabaki ahal izango ditu ordezkapenak)

.....//.....

.....//.....

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:** Garikoitz Aiesta
Etxaniz
- **EUSKO JAURLARITZA:** Garikoitz Aiesta
Etxaniz
- **ESPAINIAKO GOBERNUA:** Garikoitz Aiesta
Etxaniz
- **OSAKIDETZA** Garikoitz Aiesta Etxaniz
- **UROLA GARAIKO MANKOMUNITATEA:** Garikoitz
Aiesta Etxaniz
- **UGGASA:** Garikoitz Aiesta Etxaniz
- **SASIETA:** Garikoitz Aiesta Etxaniz
- **GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA:** Garikoitz Aiesta
Etxaniz (Ordezkoa: Jose Mari Barrenetxea Aldanondo)
- **IGARTUBEITIKO MAHAIA (GFA):** Garikoitz Aiesta
Etxaniz (Ordezkoa: Marilu Pildain Cenitagoya)
- **UDALBILTZA:** Garikoitz Aiesta Etxaniz
(Ordezkoa: Jose Mari Barrenetxea Aldanondo)

.....//.....

.....//.....

- **EUDEL:** Garikoitz Aiesta Etxaniz
(Ordezkoa: Mikel Igartua Anduaga)
- **MAHAI TURISTIKOA (UGGASA):** Marilu Pildain
Cenitagoya
- **GOIMEN:** Gorka Sasieta Barrenetxea
- **TOLOSAKO HILTEGIA:** Gorka Sasieta
Barrenetxea
- **UEMA:** Ander Unzurrunzaga
Idiakez
- **HAUR -ESKOLA PARTZUERGOA:** Ander
Unzurrunzaga Idiakez
- **ESKOLA TXIKIAK:** Ander Unzurrunzaga
Idiakez
- **UROLAKO INDUSTRIALDEAK:** Joseba Etxezarreta
Estala

HIRUGARREN PUNTUA:
UDAL OSOKO BILKURAK BATZARRAK EGITEKO
ALDIZKOTASUNA EZARTZEA.

.....//.....

.....//.....

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeak xedatzen duenez, 5.000 biztanle baino gutxiago dituen udalek, Batzar Arruntak egin beharko dituzte gutxienez hiruhilabete behin.

Kontuan hartuta , erabaki gehienak astelehenetan egingo diren batzarretan hartuko direla, eta presazko erabakiak hartzeko (Udal Osoko Bilkurak hartu beharrekoak direnean) Udal Osoko Bilkura Bereziak egingo direla, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Udal Osoko Bilkuraren Batzar Arruntak, hiruhilabete behin egitea.

LAUGARREN PUNTUA: ZINEGOTZIEN ORDAINSARIEI BURUZKO PROPOSAMENA ONARTZEA.

Ikusirik Toki Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 73 eta 75. artikuluetan arautzen dela talde politiko eta zinegotziei ordainsariak ezartzeko gaia.

Ikusirik baita gai honi buruzko gaineke arautegia.

Kontuan hartuta agintaldi honetan talde bakarra dagoela eta adostutako proposamena, eta gai honi buruz Udaleko idazkari-kontuhartzailearen 2015eko ekainaren 23ko datako txostena.

Hori dena kontuan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

.....//.....

.....//.....

LEHENA:

Alkateari dedikazioa partzial modalitateko izendapena errekonozitzea baldintza hauetan:

- 1) Dedikazio partzial modalitatean beteko du kargua %50a dedikazioarekin.
- 2) Ordainsari gordina: 22.000,00 euro urteko; kopuru hori urtean 14 ordainsarietan banatuko da.
- 3) Ordainsaria jaso ahal izateko dedikazioa honako hau izango da: udal enplegatu publikoen lanaldiaren erdia.
- 4) Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean alta emango zaio.
- 5) Ez du parte den kideanitzeko organoetara joateagatik bertaratze edo asistentziarik jasoko.

BIGARRENA:

Zinegotziei kideanitzeko organoetara joateagatik bertaratze edo asistentziak onartzea baldintza hauetan:

- 1) Udal Osoko Bilkura, Gobernu Batzordea, Informazio Batzordea, edo gainerako kideanitzeko organoetara joateagatik, bilera bakoitzeko asistentzi ordainsaria: 65,00 euro.
- 2) Kontzeptu horretan hileroko gehienezko ordainsaria zinegotzi bakoitzeko: 374,00 euro.

HIRUGARRENA:

Ordainketak atzeraeraginezko eraginarekin eta udal korporazio berria eratu zen datako ondorioekin egitea.

LAUGARRENA:

.....//.....

.....//.....

Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitara ematea.

BOSGARREN PUNTUA:

2015-06-24KO R-15-103 ALKATETZAREN EBAZPENA BERRESTEA (2012KO ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIEI BURUZKOA).

Ikusirik 2015-06-24ko R-15-103 Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez, honako hau erabaki zela:

LEHENA. Aktiboan dauden eta 2012ko abenduko aparteko ordainsaria jaso ez zuten langileei aipatu aparteko ordainsariaren 44 sortzapen-eguni (% 24,04) dagokien zatia ordaintzea, espedientean ageri den zerrendaren arabera. 2012ko abenduko aparteko ordainsari osoa eta ordainsari gehigarria aitortu ez diren kasuetan, ordainketa zegokion egunen zenbaketara murriztuko da proportzionalki.

Zenbateko hori 2015eko lehenengo seihilekoan ordainduko da, Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko hamabigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzetan, eta horrek uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikuluko 4. atalean jasotako aurreikuspenen helmena murriztea ekarriko du.

BIGARRENA. 2012ko aparteko ordainsaria jasotzerik izan ez zuten eta aktiboan dauden udal-langileei aurrerakin bat eskatzeko aukera izatea ahalbidetzea. Zenbatekoa 2012ko aparteko ordainsaritik eskuratu gabeko kopuruen baliokidea izango da (aparteko ordainsariaren zenbatekoaren % 75,96), baldintza hauekin:

* Aurrerakina ordainduko zaie, interesdunak edo enpresa-batzordeak hala eskatuta, aldez aurretik langileen batzarrak akordiora iritsita, 2015eko lehenengo seihilekoan, ordainsari hura osorik edo zati batean jasotzeko eskubidea zuten eta aipatu datan aktiboan jarraitzen duten karrerako

.....//.....

.....//.....

funtzionario eta lan-kontratu finkoa duten guztiei, eta aldi baterako lan-kontratuak duten langileei, bitarteko funtzionarioei eta behin-behineko langileei, betiere, kontratuaren edo izendapenaren amaiera-data aurrerakina itzultzeko datara iristen bada.

* Aurrerakina 2017ko apirilaren amaiera aurretik itzuliko da.

* Aurrerakina itzultzeko datara bitartean onar litezkeen 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren berreskuratze berriak aipatu aurrerakina osorik edo partzialki amortizatzerara bideratuko dira, edozein kasutan.

* Orain xedatu den aurrerakin horrek ez du interesik sortuko, eta gauzako lansarirako legez ezarrita dagoen zerga-tratamendua edukiko du.

* Zenbateko horiek aurreratuta, langilearekiko lan-harremana 2012ko aparteko ordainsaria osorik itzultzea xedatu baino lehen iraungiko balitz, itzulkin horiek, ofizioz, jasotzeko dauden ordainketei egotz dakizkieke konpentsazio bidez. Sistema hori posible izango ez balitz, edota nahikoa ez balitz, langileak ordaindu gabeko zenbatekoa sartu beharko du udalaren kutxan, eta diru hori exijitu ahal izango du ordenamendu juridikoan aurreikusitako edozein bidetatik, eta, aurrera begirako araudiak hala ahalbidetzen duenean, berriro ere aipatu zenbatekoa langileari itzuli ahal izateari kalterik sortu gabe.

HIRUGARRENA. Akordio edo esku-hartze honen berri ematea udaleko enpresa-batzordeari eta akordioaren eraginpean dauden langile guztiei.

LAUGARRENA. Erabaki hau berrestea Udal Osoko Bilkuran, organo horrek egiten duen hurrengo bileran.

Hori dena kontuan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

.....//.....

.....//.....

BAKARRA:

2015-06-24ko R-15-103 Alkatetzaren Ebazpena berrestea.

SEIGARREN PUNTUA:

**“SEXU ASKATASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA”RI
BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA.**

Aho batez onartu da Urola-Garaia Udal Elkarteak “SEXU ASKATASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA”ri buruz proposatu duen mozioa.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

**2015/02 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA
HASIERAZ ONARTZEA.**

Idazkari-kontuhartzaileak 2015/2 zenbakidun Kreditu Aldaketa espedientea aurkeztu du; adierazi du espediente honen helburu nagusia dela alkatearen dedikazioaren finantziazioarengatik 20.418,49 euroko gehikuntza aurreikustea, azpimarratuz gehikuntza finantzatzeko, 2014ko diruzaintzaren gerakina erabiliko dela.

Gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

.....//.....

.....//.....

LEHENA :

2015/2 zenbakidun Kreditu Aldaketa espedientea behin-behineko izaeraz onartzea.

BIGARRENA:

Espedientea Legeak agintzen duenaren arabera jendaurreko erakustaldian jartzea, 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Erakustaldi epean erreklamazio edo alegaziorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe behin betiko izaeraz onartuta geratuko da. Azken hau jendaurreko erakustaldiko iragarkian onartaraziko da.

ZORTZIGARREN PUNTUA: GOIERRI-UROLA-GARAICO PROTOKOLO SOZIOSANITARIOA ONARTZEA.

HONAKO HAU IKUSITA:

2014ko ekainaren 30ean Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) Batzorde Soziosanitarioa eratu zela helburu honekin: soziosanitario arloko esparru-akordio bat egitea, Udalen, Goierri-Urola Garaiko ESiren (LMA eta Zumarragako Ospitalea), Gipuzkoako Osasun Mentalaren, Donostiako Ospitale Unibertsitarioaren , Osasun Lurralde delegazioaren eta Foru Aldundiaren artean.

Batzordeak egindako lanen ondorioz “Protokolo soziosanitarioa Goerri-Urola Garaia” onartu zela.

.....//.....

.....//.....

KONTUAN HARTUTA:

Proposatzen den protokoloak, nagusiki ezaugarri hauek dituela:

Protokolo honi alegiazkotasuna ematen diona bere eraginkortasuna dela, arlo ezberdineko profesionalen lan prozeduretan duen erabilera praktikoa dela eta.

Lehenik eta behin, arretan jarraipena izateko eta zerbitzu on bat emateko, Osasun Zentroetako profesional eta langileen arteko lanen koordinazioa sustatu eta hobetzeko baliogarria izango dela.

Hori dena kontuan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENA:

Goierrri-Urola Garaia Protokolo soziosanitarioa onartzea aurkeztu den eran.

BIGARRENA:

Gai honi buruz, edozein dokumentu sinatzeko ahalmena alkatea den Garikoitz Aiesta Etxaniz jaunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA: ERREGU-GALDERAK.

Alkate jaunak adierazi du Urola Telebista prest egongo litzatekeela Udal Osoko Bilkurak grabatu eta bere programazioan jartzeko; gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren erabaki da momentuz Udal Osoko Bilkuretan telebistarik ez izatea.

.....//.....

.....//.....

Gorka Sasieta zinegotziak Itsasoko segregazio espedienteari buruz adierazi du Itsaso Bherria Elkarteak aurkeztu beharreko espedientea aurreratuta dagoela, eta proposatu du 2015ko uztailaren 29an Udal Osoko Bilkura egitea espedientea jendaurrean jartzeko erabakia hartzeko; gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren onartu da Udal Osoko Bilkura 2015eko uztailaren 29an egitea.

AHTko obrak amaitzeaz daudela eta, alkate jaunak adierazi du pendiente dauden gaiei buruzko negoziazioa jarraitzen duela eta momentu garrantzitsu eta zail baten aurrean gaudela, ETSk Udalak egindako hainbat eskaera onartzen ez dituelako. Gogorarazi du honako hauek direla orokorrean Udalak egiten dituen eskaerak : obragatik kaltetutako etxebizitzaren fatxadak margotzea, Alegiko bidearen erreposizioa egitea (Alegiko bidegorriaren 2. fasea), eta lanen jarraipenarekin bukatzea eta horren barne Igartzola ingurutik Ezkiora doan bidea hobetzea (bihurgunea kendua eta zorua botatzea). ETSren jarrera ikusita Udalak eskatu du “Ezkio-Ezkio zatiko plataformatik Igartzolako soberakinen gordetegira” egindako sarbideko pista lehenagoko egoeran uztea, eta negoziazioa nola doan kontuan izanda agian eskaera hau birplanteatzen da.

Alkateak bukatu du esanez, agian akordio bat lortzen bada ETSkoekin hemendik gutxira ziur asko Ezzohiko Udal Osoko Bilkura berria egin beharko dela “Ezkio-Ezkio zatiko plataformatik Igartzolako soberakinen gordetegira” egindako sarbideko pista dagoen egoeran uzteko baimena ematea erabakitzeko.

Beterik deialdiaren helburua, 20:00ak direnean, eta aztertzeiko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko uztailaren 1a

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....